Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko apirilaren 11, astelehena — 69 — Lunes, a 11 de abril de 2022

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## OÑATIKO UDALA

*Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2022ko deialdia. BDNS (Identif.): 618787.*

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/618787).

Oñatiko Udalak, 2022ko martxoaren 31n egindako osoko bilkuran, honako akordio hau hartu zuen:

*Lehenengo.*

Onartzea dirulaguntza lerro honen oinarriak: Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzak.

*Bigarren.*

Onartzea aipatutako dirulaguntzaren 2022ko deialdia.

1. Finantziazioa.

2022ko aurrekontu ekitaldiari dagozkion laguntzetarako, guztira hogeita bost mila euroko (25.000 €) gastua baimentzen da, 1000.480.241.01.01 eta 1000.480.241.02.01 kontu sailen kontura.

2. Eskaerak aurkezteko epea.

Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasi 2022ko azaroaren 30ean amaituko da.

Zuriketa aurkezteko epea:

Dirulaguntzaren zuriketa aurkezteko epea 2023ko urtarrilaren 10ean amaituko da.

Diruz lagundutako aldia:

Deialdi honen baitan diruz lagunduko dira 2021eko urtarrilaren 1etik eta 2022ko ekainaren 30era bitartean alta emandako jarduerak.

*Hirugarren.*

Erabaki honen bidez onartutako oinarri arautzaileak eragina izango dute Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik aurrera.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari.

Interesdunek Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa jarri ahal izango dute zuzenean erabakiaren aurka Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan, bi hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, partikularrek, aldez aurretik, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Gobernu Batzordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri berraztertzekoa berariaz ebatzi arte edo presuntzioz ezetsi arte. Hori guztia, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkezteari kalterik egin gabe.

## AYUNTAMIENTO DE OÑATI

*Bases reguladoras y convocatoria 2022 de las ayudas para la promoción de nuevas empresas. BDNS (Identif.): 618787.*

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/618787).

El Ayuntamiento de Oñati reunido en sesión plenaria de fecha 31 de marzo de 2022, adoptó el siguiente acuerdo:

*Primero.*

Aprobar las bases reguladoras de la siguiente subvención: Ayudas para la promoción de nuevas empresas.

*Segundo.*

Aprobar la convocatoria 2022 de dicha subvención.

1. Financiación.

Para las subvenciones correspondientes al ejercicio presupuestario 2022, se autoriza un gasto por importe total de veinticinco mil euros (25.000 €), con cargo a las partidas 1000.480.241.01.01 y 1000.480.241.02.01.

2. Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo para solicitar estas ayudas comenzará el día siguiente a la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y finalizará el 30 de noviembre de 2022.

Plazo para presentar la justificación:

El plazo para presentar la justificación finalizará el 10 de enero de 2023.

Periodo subvencionado:

En esta convocatoria se subvencionarán las actividades dadas de alta en el periodo comprendido entre el 1 de enero de 2021 y 30 de junio de 2022.

*Tercero.*

Las bases reguladoras específicas aprobadas mediante el presente acuerdo surtirán efectos desde el día de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa.

Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él Recurso Contencioso-Administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer Recurso Potestativo de Reposición ante la Junta de Gobierno, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

EK\CV GAO-I-2022-02025

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hau.

Oñati, 2022ko martxoaren 31.—Alkatea. (2025)

*Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzen oinarriak.*

*1. artikulua. Xedea.*

Oinarri hauen xedea da, Oñatiko Udalak emango dituen Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzak arautzea da.

Horretarako, ondorengo ataletan, dirulaguntza hauek emateko irizpideak eta prozedura finkatuko dira.

Dirulaguntza hauek ematerakoan, Oñatiko Udalaren helburua enpresa jarduera berrien sorrera edo jardueren eskualdatze bidez abian daudenen jarraipena sustatzea da; auto enplegurako eta merkataritza-lokalen alokairu gastuak finantzatzeko laguntzak emanez.

*2. artikulua. Araubide juridikoa.*

Oinarri hauek eta dirulaguntza ematean indarrean dauden arauek arautuko dute dirulaguntza hauek ematea eta Udalaren eta onuradunen arteko harreman juridikoa.

Jarraian aipatzen dira indarrean dauden arauak:

39/2015 Legea Herri Administrazioen Administrazio Prozedura.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (*Estatuko Aldizkari Ofiziala*, 2003-11-18koa) eta Lege hori garatzeko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Arautegia.

Oñatiko Udalak dirulaguntza emateko duen ordenantza arautzailea (2009ko martxoaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 54. zk.) eta 2020-2022 legealdirako Oñatiko Udalaren dirulaguntzen Plan Estrategikoa (21. zkia. duen 2020ko otsailaren 3ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua).

Oinarrietan agertzen ez den guztian, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra eta indarrean dauden gainerako arauak aplikatuko dira.

*3. artikulua. Pertsona edo erakunde onuradunak.*

Laguntza hauek jaso ahal izango dituzte Oñatin enpresa jarduera berri bat sustatzen duten edo lehendik abian dagoen jarduera bati, eskualdaketa bidez, jarraipena ematen dioten pertsona fisiko eta juridikoek. Betiere honako baldintzak betetzen badituzte:

Sortzen den enpresa jarduera berria Oñatin kokatu beharko da eta Ekonomia Jardueren Gaineko Zergan (EJZ) alta emana egon udalerrian, deialdian zehaztutako diruz lagundutako aldiaren barruan.

Enpresa jarduera berriaren sustatzaileak Gizarte Segurantzan alta emanda egon beharko dira, Langile autonomoen araubide berezian, edota hala badagokio, norbere konturako langile gisa dagokion araubidean. Alta hori deialdian zehaztutako diruz lagundutako aldiaren barruan eman beharko da.

Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean egotea.

Enpresaren tamaina, langile kopuruari dagokionez, hamar langile baino gutxiagokoa izatea.

Zigor- edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrik ez jaso izana, ezta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera edo emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.

Lo que se publica para general conocimiento.

Oñati, a 31 de marzo de 2022.— La alcaldesa. (2025)

*Bases de subvenciones para la promoción de nuevas empresas.*

*Artículo 1. Objeto.*

El objeto de estas bases es regular las subvenciones que concederá el Ayuntamiento de Oñati para la promoción de nuevas empresas.

En los siguientes artículos se plasman los criterios y procedimientos que van a regir en la concesión de las ayudas.

Con la concesión de estas ayudas, el objetivo del Ayuntamiento de Oñati es apoyar la creación de nuevas actividades empresariales y la continuidad, mediante traspaso, de aquellas actividades que ya están en marcha; con ayudas para el autoempleo y la financiación de los gastos de alquiler de locales comerciales.

*Artículo 2. Régimen jurídico.*

En lo referente a estas ayudas, esta normativa y las demás en vigor son las que regularán la relación jurídica entre las personas beneficiarias y el Ayuntamiento de Oñati.

A continuación se detalla la normativa en vigor:

Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Ley General de Subvenciones 38/2003 de 17de noviembre (*Boletín Oficial del Estado* 18-11-2003) y el Reglamento General de Subvenciones aprobado por Real Decreto 887/2006 de 21 de julio.

Ordenanza general para la gestión de las subvenciones concedidas por el Ayuntamiento de Oñati (Boletín Oficial de Gipuzkoa del 23 de marzo de 2009) y el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Oñati para el período 2020-2022 (publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa con fecha 3 de febrero de 2020 n.º 21).

En todos los aspectos no reflejados en esta normativa, será de aplicación la Ley General de Subvenciones 38/2003 y demás leyes en vigor.

*Artículo 3. Personas o entidades beneficiarias.*

Podrán percibir estas ayudas las personas físicas y jurídicas que promuevan una nueva actividad empresarial en Oñati o den continuidad a una actividad existente, a través de un traspaso. Siempre y cuando cumplan los siguientes requisitos:

La nueva actividad empresarial deberá ubicarse en Oñati y haberse dado de alta en el Impuesto de Actividades Económicas (IAE) en el municipio, dentro del periodo subvencionado que se ha fijado en la convocatoria.

Las personas promotoras deberán haberse dado de alta en la Seguridad Social, en el Régimen Especial de Trabajadores Autónomos o en aquel que, como trabajador/a por cuenta propia, en su caso corresponda. El alta deberá haberse dado dentro del periodo subvencionado que se ha fijado en la convocatoria.

Hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

Que el tamaño de la empresa, en cuanto al número de personas trabajadoras, sea inferior a diez.

No estar sancionada ni penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni estar incursa en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, o de la Ley Orgánica 3/2007, de 30 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres.

Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitako egoeren eraginpean.

*4. artikulua. Laguntza motak, zenbatekoak eta horiek jasotzeko baldintzak.*

Sorturiko lanpostuengatik dirulaguntza:

Jarduera alta ematen den momentuan, sustatzaileek sorturiko lanpostu bakoitzeko 1.500 euroko laguntza.

Lehen sektoreko jardueren kasuan, sektore honi bultzada eman eta suspertzeko helburuarekin, laguntza berezia emango zaie sustatzaileei: alta ematen den pertsona bakoitzeko 3.000 euroko laguntza.

Sustatzailea emakumea denean, sorturiko lanpostuari dagokion dirulaguntza % 30 gehituko da.

Sorturiko lanpostuengatik onuradun bakoitzeko ezartzen den dirulaguntza muga 6.000 €koa izango da.

Sorturiko lanpostuengatik dirulaguntza jasotzeko honako baldintzak bete beharko dira:

Diruz lagunduko den lanpostuaren titularrak Oñatin erroldaturik egon beharko du, gutxienez 6 hilabeteko antzinatasunarekin. Ekonomia Jardueren Gaineko Zergaren alta data erabiliko da erreferentzia bezala.

Merkataritza sektoreko jarduerak garatzeko negozio-lokalen alokairuentzako dirulaguntza:

Negozio-lokalen lehenengo urteko alokairu gastuak, gehienez ere 2.500 euro arte (zeharkako zergak ez dira diruz lagunduko).

Betiere honako baldintza hauek betetzen badira:

Jarduera nagusia txikizkako merkataritza edo hiri merkataritza- jarduerari lotutako zerbitzubat izatea. Eta Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergaren (JEZ) lehenengo ataleko multzo, talde edo epigrafe hauetakoren batean alta emanda egon beharko da:

64 multzoa: Elikagaien, edarien eta tabakoaren txikizkako merkataritza establezimendu finkoetan. Multzo honetan laguntza jasotzetik kanpo geratzen dira honako jarduera hauek: 647.3 eta 647.4 epigrafeak).

65. multzoa: Elikagaiak ez diren ekoizkin industrialen txikizkako salmenta, establezimendu finkoetan. Multzo honetan laguntza jasotzetik kanpo geratzen dira honako jarduera hauek: 652.1 epigrafea eta 654 eta 655 taldeak.

662. Taldea: Txikizkako salmenta mistoa edo integratua.

97. multzoa. Zerbitzupertsonalak. Multzo honetan laguntza jasotzetik kanpo geratzen da 979.1 epigrafea.

Ostalaritzako jarduerak –ostatuak, tabernak, jatetxeak, kafetegiaketa antzekoak– laguntza mota haujasotzetik kanpo geratzen dira.

Alokairu gastuak diruz lagunduak izateko negozio-lokala Oñatiko hirigunearen eremu barruan kokatuta egon beharko da.

Alokairu kontratua eta jardueraren titularitatea sustatzaile berriaren izeneanegon beharko da.

Diruz lagunduko diren alokairu kuoten gastuak Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergan (EJZ) alta ematen den egunetik lehenengo jarduera urtea osatu bitarteko epeansortutakoak eta ordaindutakoak izan beharko dira.

Negozio-lokala pribatua izan beharko da eta ezingo da izan sustatzailearen familia-etxebizitzaren zati; ezingo da egon 2.

No estar incursa en ninguna de las circunstancias previstas en el artículo 13. de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

*Artículo 4. Tipos de ayudas, cuantía y condiciones de acceso.*

Subvención por la creación de puestos de trabajo:

1.500 euros de ayuda por cada puesto de trabajo generado por las personaspromotoras en el momento de alta de la actividad.

En el caso de actividades del sector primario, con el objetivo del fomento de este sector, a las personas promotoras se les dará una ayuda especial de 3.000 euros por cada persona dada de alta.

Cuando la promotora sea mujer, la subvencióncorrespondiente al puesto de trabajo creado se incrementará en un 30 %.

El límite máximo de subvención por la creación de puestos de trabajo se establece en 6.000 € por entidad beneficiaria.

Para percibir la ayuda correspondiente a la creación de puestos de trabajo se tendrán que cumplir las siguientes condiciones:

La persona promotora titular del puesto de trabajo a subvencionardeberá estar empadronada en Oñati, con una antigüedad mínima de 6 meses. Se utilizará la fecha de alta en el Impuesto de Actividades Económicas como referencia.

Subvención por arrendamiento de locales de negocio, para desarrollar actividades del sector comercio:

Gastos de arrendamiento de locales de negocio durante el primer año, hasta un máximo de hasta 2.500 € (no se subvencionará los impuestos indirectos).

Siempre y cuando se cumpla los siguientes requisitos:

La actividad principal deberá ser de comercio minorista o de servicios relacionados con la actividad comercial urbana. Y tendrá que estar dada de alta en alguna de las siguientes agrupaciones, grupos o epígrafes de la sección primera del Impuesto sobre Actividades Económicas (IAE):

Agrupación 64: Comercio al por menor de productos alimenticios, bebidas y tabacos, realizado en establecimientos permanentes. En esta agrupación quedan excluidas de la percepción de la ayuda las siguientes actividades: Epígrafes 647.3 eta 647.4.

Agrupación 65: Comercio al por menor de productos industriales no alimenticios realizado en establecimientos permanentes. En esta agrupación quedan excluidas de la percepción de la ayuda las siguientes actividades: Epígrafe 652.1 y grupos 654 y 655.

Grupo 662: Comercio mixto o integrado al por menor.

Agrupación 97: Servicios personales. En esta agrupación queda excluida de la percepción de la ayuda siguiente actividad: Epígrafe 979.1.

Las actividades de hostelería –alojamientos, bares, restaurantes, cafeterías y similares– quedan excluidas de este tipo deayuda.

Para que los gastos de arrendamiento puedan ser subvencionados el local de negocio deberá estar ubicado dentro del núcleo urbano de Oñati.

El contrato de alquiler y la titularidad de la nueva actividad deberá estar a nombre de la persona que figure como promotora.

Los gastos de las cuotas de alquiler a subvencionar deberán haber sido devengados y abonados a partir de la fecha de alta en el Impuesto sobre Económicas (IAE) y hasta completar el primer año de actividad.

El local de negocio deberá ser privado y no podrá ser parte de una vivienda familiar o espacio compartido de la persona

EK\CV GAO-I-2022-02025

mailarainoko odol- edo ezkontza-ahaidetasunik lokalaren errentatzailearekin; eta ezingo da izan errentatzaile diharduen pertsona fisiko edo juridikoaren bazkide partaide.

*5. artikulua. Eskabideak eta dokumentazioa aurkeztea.*

5.1. Dirulaguntza eskatzeko eskaera-orria eta hurrengo puntuan zerrendatzen den dokumentazioa aurkeztu behako da udalean.

Eskaera egiteko inprimaki normalizatuak Oñatiko Udalaren web orrian eskuratu ahal izango dira www.oñati.eus helbidean.

5.2. Eskaera orriarekin batera, hauek dira aurkeztu beharreko agiriak:

Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena (1. eranskina), dirulaguntza publikoak eskuratzeko aukerei, beste dirulaguntzekiko bateragarritasunari eta negozio lokalaren errentatzailearekin dagoen harremanari buruzkoa.

Gizarte Segurantzako dagokion erregimenean alta eman izanaren egiaztagiria.

Sozietate pertsonalistaren, merkataritza sozietatearen edo gizarte ekonomiako sozietatearen eratze egiaztagiria (dagokion kasuan).

Enpresa proiektuaren aurkezpena edo bideragarritasun azterlana.

Dirulaguntza ingresatu beharko litzatekeen kontu korrontearen titularitatea egiaztatzen duen agiria

Dirulaguntzaren xedediren lanpostuen titularren NANaren kopiak.

Dirulaguntza eskaera aurkezteko momentuan Gizarte Segurantzan ordainketak egunean daudela adierazten duen ziurtagiria.

Dirulaguntza eskaera aurkezteko momentuan Ogasunean ordainketak egunean daudela adierazten duen ziurtagiria.

Alokairu kontratua (dagokion kasuan).

Dirulaguntzaren zenbatekoa justifikatzeko beharrezkoak diren alokairu kuoten fakturak eta ordainketa ziurtagiriak (dagokion kasuan).

Oñatiko Udalakbeharrezkoairitziz gero, kasu bakoitzean eskatu lezakeenbeste dokumentazio gehigarria.

5.3. Oñatiko Udalak, Nisae - Euskadiko administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horretaz gain, zerbitzuaren tramitazio administratiboa egiteko beharrezkoak diren egiaztapen guztiak ere egingo ditu. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatze ari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada berariaz; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administraziok egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administraziori emandakoak.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikuluak adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Horren ildotik, Oñatiko Udalak Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzak emateko baldintzen egiaztapena egiteko honako zerbitzuak kontsultatuko ditu Nisae Euskadiko administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoaren bidez:

promotora; no podrá existir relación de parentesco hasta 2.º grado de consanguinidad afinidad con la persona arrendadora del local; ni ser socio/a o partícipe de la persona física o jurídica que actúe como arrendador/a.

*Artículo 5. Presentación de solicitudes y documentación.*

5.1. Para solicitar la ayuda se deberá presentar la hoja de solicitud y la documentación detallada en el siguiente punto en el ayuntamiento.

Los impresos normalizados de solicitud estarán disponibles en la página web del Ayuntamiento de Oñati (www.oñati.eus).

5.2. Junto con la solicitud se deberá presentar la siguiente documentación:

Declaración responsable (anexo 1) relativa a la posibilidad de obtención de ayudas públicas, compatibilidad con otras ayudas y relación con la personas arrendadora del local de negocio.

Certificado de alta en el correspondiente régimen de Seguridad Social.

Certificado de constitución de la sociedad personalista, mercantil o de economía social (en el caso que corresponda).

Presentación de la idea empresarial o plan de viabilidad.

Justificante de la titularidad de cuenta bancaria donde se ingresaría la ayuda.

Copia del DNI de la persona titular del puesto de trabajo a subvencionar.

Certificado de estar al corriente de pagos en Hacienda en el momento de presentar la solicitud de subvención.

Certificado de estar al corriente de pagos en la Seguridad Social en el momento de presentar la solicitud de subvención.

Contrato de arrendamiento (en el caso que corresponda).

Facturas y certificados de pago de las cuotas de alquiler suficientes para justificar el importe de la subvención (en el caso que corresponda).

Cualquier otra documentación que el Ayuntamiento de Oñati estimara oportuno requerir en cada caso.

5.3. El Ayuntamiento de Oñati realizará mediante Nisae - Nodo de interoperabilidad y seguridad de las administraciones de Euskadi, las comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración, así como cualquier otra requerida para la tramitación administrativa del presente servicio. Es por ello que se dejarán de solicitar datos que puedan ser interoperables, siempre y cuando la persona interesada no se oponga de forma expresa al uso de los mismos, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes.

El fundamento para la intermediación de datos entre las Administraciones Públicas se concrete en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, donde se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración, documentos originales, datos o documentos no exigidos por la normativa reguladora aplicable o que hayan sido aportados anteriormente por la persona interesada a cualquier Administración.

Asimismo, existe el deber de las Administraciones de colaborar, tal y como indica el artículo 155 de la Ley 40/2015 en el entorno del intercambio de datos, debiendo facilitar los datos relativos de la ciudadanía que obren en poder de estas.

En este sentido, para verificar si se cumplen los requisitos para otorgar las ayudas de promoción de nuevas empresas, el Ayuntamiento de Oñati va a consultar los siguientes servicios a través de Nisae - Nodo de interoperabilidad y seguridad de las administraciones de Euskadi:

EK\CV GAO-I-2022-02025

Poliziaren zuzendaritza nagusia: Nortasun datuen kontsulta eta egiaztatzea.

Gipuzkoako Foru Aldundia: Zerga-betebeharren ordainketa egunean edukitzea kontsulta.

Gipuzkoako Foru Aldundia: Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren epigrafeen kontsulta.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia: GSND-arekiko betebeharren ordainketa egunean edukitzearen kontsulta.

Era berean, Oñatiko Udalak ofizioz egiaztatuko ditu ondorengoak:

Diruz lagunduko diren lanpostuen titularren errolda.

Ekonomia Jardueren Gaineko Zerga (EJZ) altaren helbidea.

5.4. Eskabideak edo dokumentazio lagungarriak akatsik izanez gero edo osatugabeak badira, interesdunei hamar eguneko epea emango zaie atzemandako akatsak konpontzeko (39/2015 Legearen 68.1 art.). Epea igarota, horrelakorik egin ezean, eskariari uko egin zaiola ulertuko da, betiere 39/2015 Legearen 93 eta 94 artikuluetan aurreikusitako moduan ebazpena eman ondoren.

*6. artikulua. Ebazteko eskumena duen organoa, dirulaguntzak emateko prozedura, ebazpena, epeak, eta berraztertzeko errekurtsoa.*

6.1. Eskaera jasotzen denean, Sozioekonomia teknikariak edo, bera ez badago, haren eginkizunak bereganatzen dituenak, txostena egingo du. Txosten horretan honako hauek azalduko dira: Dirulaguntzaren eskatzailea, diruz laguntzeko ezarritako baldintzak betetzen dituen eta, hala badagokio eta deialdi honetako oinarri-arauen arabera, eman beharreko dirulaguntza.

Sozioekonomia eta Turismo batzordeak, txostena irakurrita, dagokion ebazpen-proposamena egingo dio Alkatetzari. Proposamen hori bat etor daiteke teknikariaren txostenarekin edo bestelakoa izan. Nolanahi ere, arrazoitua izan behar du eta deialdi honetan dirulaguntzak emateko ezarritako baldintza eta irizpideekin bat etorri.

6.2. Tokiko Gobernu Batzordeak Sozioekonomia eta Turismo Batzordeak egindako ebazpen-proposamena irakurri ondoren, prozedura ebatziko du. Ebazpena bat etor daiteke behin betiko ebazpen proposamenarekin edo bestelakoa izan. Azken kasu horretan, arrazoiak azaldu eta ebazpena justifikatuko du, deialdi honetan ezarritako irizpideen aplikazioan oinarrituRik.

Prozeduraren ebazpenean honako hauek azalduko dira: Eskatzaile bakoitzari emandako dirulaguntza eta zer baldintzatan eman den (diruz lagundutako jarduera, dirulaguntzaren zenbatekoa, diru-laguntzen justifikatzeko modua eta epea, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta abar), bai eta ezetsitako eskabideak, atzera egindakotzat jo direnak eta horien arrazoiak ere.

Era berean, udal-ebazpenean adieraziko da zer errekurtso jar daitezkeen ebazpen horren aurka, zer organo judizialetan aurkeztu behar diren eta zer epetan, hargatik eragotzi gabe, interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkezteko aukera.

Orobat, dirulaguntzak emateko akordioetan 10 laneguneko epea emango zaie onuradunei, adierazi dezaten onartu dutela. Ulertuko da inplizituki onartu dutela, horretarako eman den epean besterik adierazten ez bada.

6.3. Eskabideek oinarri hauetan zehaztutako eskakizunak betetzen dituztela egiaztatutakoan, ordenan emango dira laguntzak, espedientea osatzen den unearen arabera. Organo eskumendunak hainbanatu egingo du (38/2003 Legearen 22 art.) onuradunen artean dirulaguntza honetara bideratutako gehienezko kopurua, jarduketa horietarako aurrekontu-zuzkidura amaitu

Dirección General de la Policía: Consulta y verificación de datos de identidad.

Diputación Foral Gipuzkoa: Consulta de estar al corriente de obligaciones tributarias.

Diputación Foral Gipuzkoa: Consulta de epígrafes del Impuesto de Actividades Económicas.

Tesorería General de la Seguridad Social: Consulta de estar al corriente de pago de obligaciones con TGSS.

Asimismo, el Ayuntamiento de Oñati comprobará de oficio:

El empadronamiento de titulares de los puestos objeto de subvención.

El domicilio del alta en el Impuesto sobre Actividades Económicas (IAE).

5.4. Cuando la instancia de solicitud o la documentación que debe acompañarla adolecieran de algún error o fueran incompletas, se otorgará a las personas interesadas un plazo de diez días para subsanar los defectos detectados (art. 68.1 de la Ley 39/2015), transcurrido el cual, sin que lo hubieran hecho, se les tendrá por desistidos de su petición, previa resolución dictada en los términos previstos en los artículos 93 y 94 de la Ley 39/2015.

*Artículo 6. Órgano competente para la resolución, procedimiento de concesión, resolución, plazos y recurso de reposición.*

6.1. Una vez recibida la solicitud, el/la Técnico de Socioeconomía, o en su ausencia quien asuma sus funciones, emitirá informe. En este informe se recogerá información sobre la persona solicitante de la ayuda, si reúne los requisitos establecidos para ser subvencionada, y la subvención que, en su caso, procedería conceder en aplicación de las Bases de esta convocatoria.

A la vista de ese informe la Comisión Informativa de Socioeconomía y Turismo, formulará a alcaldía la correspondiente propuesta de resolución, propuesta que podrá coincidir con el informe emitido por la/el citada/o Técnico o no, si bien en todo caso deberá estar motivada y conforme con los requisitos y criterios de concesión establecidos en la presente convocatoria.

6.2. La Junta de Gobierno Local, a la vista de la propuesta de resolución emitida por la Comisión Informativa de Socioeconomía y Turismo, resolverá el procedimiento, pudiendo hacerlo en el mismo sentido que la propuesta de resolución definitiva, o apartándose de la misma, si bien en este caso deberá motivar la razón de ello y justificar la resolución en la aplicación de los criterios establecidos en la presente convocatoria.

En la resolución del procedimiento se expresarán la subvención concedida a cada solicitante, las condiciones en que se otorguen (tales como actividad subvencionada, cuantía máximas de subvención, forma y plazo de justificación de su ejecución, documentación a presentar, etcétera), así como las solicitudes desestimadas y las declaradas desistidas, y su motivación.

Igualmente, en la resolución municipal se indicarán los recursos que contra la misma procedan, así como el órgano judicial ante el que hubieran de presentarse y plazo para interponerlos, sin perjuicio de que las personas interesadas puedan ejercitar cualquier otro que estimen conveniente.

Asimismo, en los acuerdos de concesión de subvenciones se otorgará a las personas beneficiarias un plazo de 10 días hábiles, al objeto de que éstos manifiesten su aceptación. Se entenderá que esta ha sido implícitamente aceptada si en el plazo concedido al efecto no se efectúa manifestación alguna.

6.3. El procedimiento de concesión estas subvenciones se realizará, una vez comprobado que las solicitudes cumplen con los requisitos exigidos en estas bases, ordenadamente según fecha de entrada y en función del momento en que el expediente esté completo. El órgano competente procederá al prorrateo (art. 22 de la Ley 38/2003), entre las personas beneficiarias de

arte. Kreditua zabaltzen ez bada, behin aurrekontu-zuzkidura amaituta, geratzen diren eskabideei ezezkoa emango zaie.

6.4. Erabakiak eman eta jakinarazteko gehieneko epea 3 hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezten direnetik hasita. Epe hori igarotakoan, berariazko erabakirik eman gabe, ulertuko da eskabidea ez dela onartu.

Prozeduraren instrukzioa egin ondoren, eta ebazpen-proposamena idatzi baino lehen, 39/2015 Legearen 82. artikuluan aurreikusitako entzunaldi-izapidea egingo da, salbu eta prozeduran interesdunek azaldutako egitate, alegazio eta frogak baino ez badira agertzen eta kontuan hartzen.

Ebazpenak administrazio-bidea amaitzen du.

6.5. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdiaren ebazpena laburtuta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik. Interesdunek Oñatiko Udalaren webgunean (www.oñati.eus) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

*7. artikulua. Erakunde onuradunen betebeharrak.*

Dirulaguntza emanez gero, oinarri-arau espezifikoetan jasotakoez gain, entitate onuradunaren obligazioak dira hauek:

Helburua betetzea, proiektua betearaztea, ekintza egitea edo dirulaguntza emateko zio den jokabideari eustea.

Dirulaguntza eman duen organoari justifikatzea betebeharrak eta baldintzak bete izana, bai eta ekintza gauzatu izana eta dirulaguntza jasotzeko edo erabiltzeko helburua bete izana ere.

Dirulaguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztatze jardunak onartzea, bai eta eskuduntza izendaturik duten kontrol organoek, estatukoak nahiz erkidegokoek, egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontroleko beste edozein ere, eta errekeritzen zaien informazioa eman behar dute, aurreko jardunak burutzeko.

Dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako ekintzak finantzatzen dituzten beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo bitarteko batzuk lortu izana. Jakinarazi beharko da horien berri izan eta berehala, eta edozelan ere, fondoei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

Egiaztatzea zerga obligazioak betetzen dituela Gizarte Segurantzarekin, Foru Ogasunekin eta Estatuko Ogasunekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin.

Behar beste baimen lortzea, diruz lagundu beharreko jarduera garatzeko, eta baimenon xedapenak betetzea.

Jarduera zelan garatzen ari den adieraztea, Udalaren eta Erakundearen aldetik jarraipena egin edo laguntzeko.

Dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea, dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera aldatuz gero.

*8. artikulua. Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin bat etortzea eta finantziazio muga.*

Programa honetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira kontzeptu beragatik diruz laguntzeko erakunde pu-

la subvención, del importe global máximo destinado a las subvenciones, hasta el agotamiento de la dotación prevista para estas ayudas. Dejando al margen eventuales ampliaciones crediticias, una vez agotada la dotación presupuestaria se denegarán las solicitudes pendientes.

6.4. El plazo máximo para dictar y notificar las resoluciones que correspondan será de 3 meses, contado a partir de la fecha de presentación de la solicitud. Transcurrido este plazo sin que se haya dictado resolución expresa, se entenderá que la solicitud ha sido desestimada.

Instruido el procedimiento, e inmediatamente antes de redactar la propuesta de Resolución, se evacuará el trámite de audiencia previsto en el artículo 82 de la Ley 39/2015, salvo que no figuren en el procedimiento ni sean tenidos en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por las personas interesadas.

La resolución pone fin a la vía administrativa.

6.5. De conformidad con lo establecido en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de la convocatoria se publicará en extracto en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. Dicha publicación sustituirá a la notificación individual, que se entenderá practicada y producirá efectos legales desde el día siguiente a la publicación de la resolución. Las personas interesadas podrán consultar el contenido íntegro de la resolución en la página web del Ayuntamiento de Oñati (www.oñati.eus).

*Artículo 7. Obligaciones de las entidades beneficiarias.*

En caso de concesión de subvención, además de las recogidas en las Bases específicas, son obligaciones de la entidad beneficiaria las siguientes:

Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.

Justificar ante el órgano concedente, el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.

Someterse a las actuaciones de comprobación a efectos por el órgano concedente, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competentes, tanto nacionales como comunitarios, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.

Comunicar al órgano concedente la concesión de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos.

Acreditar que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias frente a la Seguridad Social, el Ayuntamiento de Oñati, las Haciendas Foral y Estatal y la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Obtener cuantas autorizaciones sean precisas para el desarrollo de la actividad subvencionada y cumplir sus determinaciones.

Facilitar información sobre el desarrollo de la actividad, de cara al seguimiento y posible colaboración por parte del Ayuntamiento u Organismo Autónomo.

Comunicar al órgano concedente la modificación de cualquier circunstancia que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

*Artículo 8. Concurrencia con otras ayudas y límites de financiación.*

Las ayudas previstas en el presente programa serán compatibles con otras ayudas provenientes de organismos públicos o

EK\CV GAO-I-2022-02025

bliko edo pribatuetatik jasoko diren bestelako laguntzekin, beti ere gain-finantzazioa gertatzen ez bada; kasu horretan, programa honen bidez emandako laguntza soberako zenbatekoan gutxituko da.

Enpresa batek baja eman eta gero, honen sustatzaileek ezingo dute jaso dirulaguntza hau, baja eman denetik, gutxienez, 18 hilabete pasa arte. Dena den, honelako kasuak, banan-banan aztertu eta erabakiko ditu batzordeak.

*9. artikulua. Dirulaguntza ordaintzeko eta zuritzeko modua eta epeak.*

9.1. Sorturiko lanpostuentzako dirulaguntzaren ordainketa eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiri eta txostenak aurkeztu eta laguntza emateko baldintzak betetzen direla egiaztatu ostean egingo da. Udalak aldeko ebazpena emandakoan eta gehienez ere ebazpenaren datatik lau hilabeteko epean.

9.2. Merkataritza lokalen alokairuari dagokion dirulaguntzaren ordainketa alokairu gastuak justifikatu ostean egingo da, fakturak eta ordainagiriak aurkeztuta eta laguntza emateko baldintzak betetzen direla egiaztatutakoan. Udalak aldeko ebazpena eman eta gehienez ere ebazpenaren datatik lau hilabeteko epean.

Alokairu gastuak eskaerarekin batera justifikatzen badira, dirulaguntza zenbateko osoa ordainketa bakar batean egingo da.

9.2. Aurkeztutako justifikazioa zuzena bada, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdiaren ebazpena laburtuta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik. Interesdunek Oñatiko Udalaren webgunean (www.oñati.eus) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

Itzulketa-prozedura hastea erabakiko balitz, banan-banan jakinaraziko zaie interesdunei.

*10. artikulua. Obligazioak ez betetzea eta itzulketa kasuak.*

Dirulaguntzen 38/2003 Legearen 36. artikuluan aurreikusitakoez gain, dirulaguntza emateko erabakia deuseztasunagatik edo deuseztagarritasunagatik, bidezkoa izango da jaso diren kopuruak itzultzea eta berandutza interesa eskatzea, dirulaguntza edo laguntza ordaindu den unetik aurrerakoa, hauetakoren bat gertatuz gero:

Frogatzeko obligazioa ez betetzea edo jasotako fondoen zertarakoa ez frogatzea nahiko, ezarritako eran eta epeetan.

Dirulaguntza eskuratzea, hartarako errekeritzen diren baldintzak faltsutuz edo ez ematea sor lekizkiokeen baldintzak ezkutatuz.

Ez betetzea dirulaguntza ematerakoan onuradunari izendatzen zaizkion baldintzak.

Ez betetzea, oso-osoan edo zati batean, laguntza edo dirulaguntza ematerako oinarri den xedea.

Uko edo oztopo egitea organo eskudunen kontrol jarduerei.

Dirulaguntza jaso duen enpresak hamabi hilabete baino lehen, arrazoizko justifikazio gabe bere aktibitatea utzi eta baja ematen badu, dirulaguntza itzuli egin beharko dute sustatzaileek.

Laguntza edo dirulaguntza bakoitzaren arau bereziek xedaturiko gainerako baldintzak.

privados y que subvencionen los mismos conceptos, siempre que no se incurra en sobrefinanciación; de superarse dicho umbral, la subvención a otorgar a través de este programa se reducirá en la cuantía excedida.

En general, la empresa que, habiendo percibido una ayuda del Ayuntamiento, se dé de baja, la persona o personas promotoras de la misma, no podrán percibir esta ayuda hasta pasar como mínimo 18 meses. En todo caso, estas situaciones se estudiarán de manera individual por parte de la comisión.

*Artículo 9. Forma y plazos de abono y justificación de la subvención.*

9.1. El abono de la subvención correspondiente a la creación de puestos de trabajo se realizará tras analizar la documentación que se debe presentar junto con la solicitud y comprobar que se cumplen los requisitos para otorgar la ayuda. En un plazo máximo de cuatro meses desde la fecha de la resolución favorable dictada por el Ayuntamiento.

9.2. El abono de la subvención correspondiente al arrendamiento de locales comerciales se realizará una vez justificados los gastos de arrendamiento, mediante la presentación de las facturas y justificantes de pago y comprobar que se cumplen los requisitos para otorgar la ayuda. En un plazo máximo de cuatro meses desde la fecha de la resolución favorable dictada por el Ayuntamiento.

Si los gastos de alquiler se justifican junto con la solicitud, el importe total de la subvención se abonará en un único pago.

9.2. En el caso de que la justificación presentada sea correcta, de conformidad con lo establecido en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de la convocatoria se publicará en extracto en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa. Dicha publicación sustituirá a la notificación individual, que se entenderá practicada y producirá efectos legales desde el día siguiente a la publicación de la resolución. Las personas interesadas podrán consultar el contenido íntegro de la resolución en la página web del Ayuntamiento de Oñati (www.oñati.eus).

Si se acordarse el inicio del procedimiento de reintegro se notificará individualmente a las personas interesadas.

*Artículo 10. Incumplimiento de obligaciones y supuestos de reintegro.*

Además de las previstas en el artículo 36 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, por razón de la nulidad o anulabilidad de la resolución de concesión, procederá el reintegro de la cantidad percibida y la exigencia del interés de demora desde el momento del pago de la ayuda o subvención, cuando concurra alguno de los siguientes supuestos:

Incumplimiento de la obligación de justificación o justificación insuficiente del destino de los fondos percibidos, en la forma y plazos establecidos.

Obtención de la subvención falseando las condiciones requeridas para ello u ocultando aquellas que lo hubieran impedido.

Incumplimiento de las condiciones impuestas a las personas beneficiarias con motivo de la concesión de la subvención.

Incumplimiento total o parcial de la finalidad para la que fue concedida la subvención.

La negativa u obstrucción a las actuaciones de control por los órganos competentes.

Si la empresa que percibe la ayuda se da de baja antes de los doce meses del inicio de la actividad, y sin causa justificada, tendrá que devolver la ayuda recibida.

En los demás supuestos previstos en las bases específicas de la subvención.

EK\CV GAO-I-2022-02025

*11. artikulua. Dirua itzultzeko prozedura.*

11.1. Dirulaguntza eman zuen organoak berak izango du eskumena jaso den zenbatekoaren, osorik edo zati batez, itzulketa exijitzeko akordioa hartzeko.

11.2. Dirulaguntza itzultzeko prozedurari bere kabuz ekingo zaio laguntza edo dirulaguntza ematen duen organoak eskatuta, hura izapidetzeko administrazio atala arduradunak txosten egin eta gero, edota banakoren batek eskatuta edo salatuta.

11.3. Prozedura izapidetzerakoan bermatu beharko da, nolanahi ere, interesatuari entzuteko eskubidea.

11.4. Ematen den dirulaguntza guztiz edo aldez ez dela behar bezala erabiltzen egiaztatzekotan, organo eskudunak ziodun ebazpena emango du, argiro adierazita zergatik itzuli behar duen nahitaez onuradunak, itzuli beharreko zenbatekoa eta horretarako epea eta modua, aipatuari ohartaraziko zaiola dirua xedaturiko epean itzuli ezean, premiamenduzko bideari ekingo diola Udalak.

11.5. Itzultzeko prozedurari ekiten bazaio administrazio arauren bat urra dezakeen zer edo zergatik, horren jakitun jarriko da organo eskuduna arauzko zigor prozedurari ekiteko.

11.6. Itzultzeko prozedura pertsona fisikoen edo juridikoen kontra zuzenduko da, edo nortasun juridikoa ez daukaten pertsona fisiko edo juridikoen taldeetako kideen kontra, dirulaguntzaren eskatzaile edo onuradun agertzen direnak.

11.7. Erantzukizun solidarioa, edo subsidiarioa erabakitzeko, dirulaguntza itzultzeko obligazioaren ondorioz, gehiturik berandutza interesak, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 40. artikuluan xedatutakoari lotuko zaio.

*12. artikulua. Bermeak.*

Dirulaguntza emateko akordio konkretuek besterik xedatu ezean, ez da jotzen beharrezko bermeak exijitzea Udalaren alde, emandako laguntzengatik.

*13. artikulua. Oinarrien interpretazioa.*

Oinarri-arau hauek interpretatzeari buruz sortu daitezkeen zalantzak oinarri hauek onartzeko organo eskudunak erabakiko ditu, dagokion Sozioekonomia eta Turismo batzordearen proposamena aztertu eta gero.

*Artículo 11. Procedimiento de reintegro.*

11.1. Será competente para adoptar la resolución de exigir el reintegro, total o parcial, del importe percibido, el órgano que concedió la subvención.

11.2. El procedimiento de reintegro de las subvenciones que se iniciará de oficio por acuerdo del órgano competente, previo informe de la unidad administrativa responsable de su tramitación, o bien a instancia de parte o por denuncia.

11.3. En la tramitación del procedimiento se garantizará en todo caso el derecho de audiencia a la persona interesada.

11.4. Verificada la indebida aplicación total o parcial de la subvención concedida, el órgano competente dictará resolución que deberá ser motivada, incluyendo expresamente la causa o causas que originan la obligación del reintegro, así como la cuantificación del importe a devolver, y forma y plazo para reintegrarlo, advirtiendo de que en el caso de no efectuar el reintegro en el plazo previsto, se procederá a su cobro por vía de apremio.

11.5. Si el procedimiento de reintegro se hubiera iniciado como consecuencia de hechos que pudieran ser constitutivos de infracción administrativa, se pondrán en conocimiento del órgano competente para la iniciación del procedimiento sancionador correspondiente.

11.6. El procedimiento de reintegro se dirigirá contra las personas físicas o jurídicas, o contra los miembros de las agrupaciones de personas físicas o jurídicas que no tengan personalidad jurídica, que figuran como solicitantes o beneficiarios/as de la subvención.

11.7. Para la determinación de la responsabilidad solidaria, o subsidiaria, según proceda, de la obligación de reintegro de la subvención, más los intereses de demora correspondientes, se estará a lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 39/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

*Artículo 12. Garantías.*

Salvo que los acuerdos específicos dispongan lo contrario, no se considera necesaria la exigencia de garantías a favor del Ayuntamiento, respecto a las subvenciones concedidas.

*Artículo 13. Interpretación de las bases.*

Las dudas que puedan surgir respecto de a la interpretación de estas bases serán resueltas por el órgano competente para la aprobación de las presentes bases, previo informe, en su caso, de la Comisión de Socioeconomía y Turismo.